

JOSE MANTEROLA

Ignacio María Barriola

RIEV-en Omenaldi-Zenbaki bat ez dirudi norbaiten bizieraren berriak emateko egokiena. Bai, alaz ere, aldizkariaren zabalkuntza aundia dala eta, oraindik egin gabea dagoen norbait orren azterketa sako-naren alde idazleari deia egiteko.

Orrela, euskal kultura arloan maisu nekagaitza dan Julio Caro Baroja-ren omenezko Zenbaki one-tan agertzeko eskeini ditut orrialde auek azkeneko gizaldian eusko kulturaren berpizteak ainbeste zor dion Manterolataz idatziak, nor izan zan agerturik, norbaiteri dakizkigunak osotzeko grina sor arazi dezaioten.

Adrian de Loyarte, mende ontako leenengo irurden urteetan Donostiako kronikalari eta Manterolaren edesti labur baten egileak, oneri buruz zion, maitasun aundi bateri eskeini ziola bere bizia: “aberria, bere gauza eta oiturak” bainan Euskalerrriak bear zuen garrantzia, merezi zuen itzala, agertu ez ziola”.

Bere sortzaile eta idazkari izan zanaren Euskal Lore Jokoen Batzordeak, Manterola il urren, 1885-ko apirilaren 15-ean, arren izena kale bateri jartzea eska zion Donostiako Kontseiluari, Kontseiluak ontzaz arturik, geroztikan eta gaur arte, leenago “del Arenal” izendatzekotan zegoen kaleari Manterola izena ezarri zion.

Egun, donostiar gutxik dakite José Manterola nor izan zan nola eta askok, bere izen bereko Vicente de Manterola, izlari ospetsu, donostiarra bera ere, Buen Pastor Katedrale inguruko lore baratzean ager zaigun oroikarrian dagoenakin naaspiltzen ez badute. Okerrena, euskalzaleak ere nor izan genuen ondo ez jakitea.

Donostian, XIX mende bukaeran ager dan kultura astarnaren bila dijoan-nak, alabaina, Manterola, bere CANCIONERO VASCO eta EUSKAL-ERRIA aldizkarien izenak, ziur arkitzen dituela.

Garai artan Donostiako buru lanetara jarritakoen bizikera eta lanetaz gutxi dakigu. 1876, bigarren karlista gudua bukatu dan eta gure erriarentzat ain tamalgarria, urte arren aurrekoaz, beintzat. Geroztikakoak bait dira agertu zaizkigun orduko idazleen idatzi geienak, bapateko idazle askorenak gainera. Izkuntz orokorragoa bezela, gaztelaniz idatziak geienbat, oiturazko lanetan itz eta esanaldi asko euskeraz, etxeko edo alkar arteko mintzaera zalarik, irakurri aal arren. Gure izkuntzan idatziak, ia, olerki edo antzerkiak utsik arki ditezke.

Manterolaren burutapen nagusia, euskera aipatzea eta ain itzalia zegoen euskal sendimendua gorestea. Bear zaila, benetan, denbora aietako, bainan

zailtasun orren neurria ondo nabaritzeko bearrezkoa degu aldi artako egoera ezagutzea.

José Manterola, idazlea, Donostiako Narrika kalearen 1-ean 1849-ko epailaren 21-ean jaio zan. Bere gurasoak, Gregorio, lezoarra, ikasia, langile eta diputadu izana; eta Ramona Beldarrain, donostiarra. Donostian asi zituen Josek bere ikasketak, Bergaran batxilerra amaitu arte jarraitzeko. Andik aurrera, Valladolid, Zaragoza eta azkenik Madriden, Filosofia eta Elerti (Filosofia y Letras) lizentzi gradua lortu arte.

An zegoela eta bere joeraren gisa, Madrideko EL RESUMEN izparringian lankide. Tituloa lortu ondoren Donostiaratu zan eta emen bizi, gazterik il zan arte. Eloísa Amiama, bere emazteak, bi seme, Luis eta Angel, eman zizkion. Eta Loyartek dionez, txit atsegin, sendi aldeko, senar eta aita eredu bezela ager zaigu.

Politika eta kultura aldetik, zer giro arkitu zuan Donostian bertaratu zanean?

Bergarako Besarkada ain ezagunaren amargarren urtean, pake denboran, jaio bazan ere, urte artan bertan Montemolín Kontea, Carlos María Isidro erregegai altxa zanaren semeak, guda sortu zuan berriro, bere gudaloste eta asmoak purrukatuak izan baziran ere. Gazte zala, Espainiako politika giro naasia bizi bearrean arkitu zan: 68-ko irailako iraultza, Isabel II-aren amilketa, Saboiako Amadeoren erregetza laburra, leengo Errepublika, bigarren karlista gudua eta Alfonso XII-n bidez Borbontarren etorrera.

Gipuzkoan zear karlistak jabe baziran, Donostian liberalak, bi zatitan banatuak egon arren, nagusi: moderatuak eta aurrerakoiak edo progresistak. Lege zaarren aldeko leenengoak, ez ainbat besteak. Ez bait zituzten auek ontzat artzen, salerosketa eta ekonomi aldetik Donostiarako kaltegarria zitzairen errenterien (aduanaren) orduko egoitza. Pozik artu zuten, beraz, Esparteroren Dekretoak, au da, errenteri aiek kai eta Espainiako mugetara alda zituena.

Bergarako besarkadan sortutako ilusioak lurjota utzi zituen dekretu arrek: Diputazio eta Batzar Naguziak ezerretzu eta bere ordez beste probintzietako Diputazioen antzekoak Euskalerrian sortu, epai erabideak aldatu, Buru edo Jefe Politikoaren almenak indartu eta ain maitea zan “pase forala” kendu egin bait zituen.

Ez zan, bada, arrigarria Gipuzkoan, liberalak nausi ziran errietatik alde, Donostia beren artean, erri eta jende geienak karlistaren ondoan jartzea bigarren guda, 1873-ean asi zanean.

Andik iru urtera bukatua zorigaiztoko gerra bukatua arren ondorioak ondo ezagunak ditu gure erriak. Espainia osoan sortu zan edo sortu arazi zuten Foruen aurkako igidura aitzaki, lege zaarrak aienatu zizkiguten, Konzertu Ekonomikoak beren ordez utzirik.

Lege berrien aurka jotzea eta zaarrak gogoratzea izan zan ordutik aurrera, urteekin kemena epelduaz, gure idazle eta izparringien zeregina.

Politika aldeko ikuspegi mingarri onen ondoan, kultura alorrean ez zan atseginagoa. Histori, etnografi edo lege gaietan, batzu ez beste, euskal berezitasun orokorrik, denean probintzi bakoitzeko eta ez geiago, begiztatu gabe; sendimendu aberkoirik eza; Unibersitate gabetanik, bastertzen zijoan gure izkuntza errixko sermolari edo etxe barrurako mugatua. “Biotza jelatzen eta gogo bizien iturria agortzen duten garai sinisgaitzak” Pedro Egañaren itzez; edo leen aitaturako Loyartek zion eran: “biotz euskaldunak, berekin zeramazkien ajolagabetasun izozgarriak” jabetuaz, ederti edo idaz lanen aldeko gogorik inundikan agertzen ez zan denbora. Gaur bezela ilun, ulerkaitz, zaigun fuerismoa zan, batez ere, geienak biltzen zituen xedea.

Giro onetan bizi bearra izan zuen Manterolak, ez etsita ordea, eskutuan zeuden erri sustrai bila setatsu lanean baizik. Eta bere iritziz, izkuntza leenengo, lan guziak merezi zituen. Bainan inori minkortasunik sor arazi gabe, nabari zituen kezka ez aunditzeko, euskeraren alde egiterakoan bide bakarra eskeintzen zitzaion: politika alde batera utzi eta egokiak zituen bideetan erabiltzea, kultura gaietan. Ala, Foruen aldeko idazkiak Madrideko LA PAZ, ortarako sortua zan eta emengo idazle geienak berea zuten izparringian agertu zituen. Artikulu aiek zirala bide bi prozesu egin zizkieten eta Donostiako Institutoan zuen Auxiliari lantokitik kalera bota ere, “emengo instituzio demokratikoaren ontasun, gaitasun eta zuzentasunaren alde setasun, etsipen eta sustraitetaz jokatzegatik”, Becerro de Bengoak zionez.

Donostiara eldu zanean, 1871'n GUIA DE GUIPUZCOA bi satitan banatua Gipuzkoa eta Donostia xede zituztenak, argitaratu zuen. Leen esandako Foruen alde idatziak, Joaquín Jamar-ek sortutako EL AURRERA'n, iraun zuen bi urtetan (1868-70), gero zuzendari bezela zuten eta andik bi urtera ager zen DIARIO DE SAN SEBASTIAN-en argitaratu zituen; bai bata nola bestea liberal kutsuko izparringiak.

Manterolaren euskal zaletasunak, orduko erakoa noski, euskera eta onen zabaltasuna zituen elburu gure kultur berezien kanpaina asierarentzat aukerako bezela. Geienen aurka zijoala eta “regionalismo” ain iguingarri agertzen zanen menpean ez erortzea argi zituen. Esan dedan eran, euskera baztertzen zijoan: “neskatil baserritarra Donostiara etorri eta andik amabost egunera, euskeraz egiten zaion galderari gaztelani zarpailan erantzutea euzkeraz ez egiteagatik, bere sortizkuntzaz lotsa balitzake bezela...” idatzi zuen Jamar'ek “Calei-Cale” izen ordez, Eugenio Gabilondok, idatzi zuen A TRAVES DE IRUCHULO liburuari jarri zion Itzaurrean. Berdin, “Erdi klasean, euskal kutsuko edozer gauza ajolarik gabe eta begi zear begiratzen zan” esango zuen beranduago Loyartek.

Donostiako Ateneoan, Manterola eta Serafín Barojak Vilincheren neurtitzak ager zituzten Ateneo artan, “Euskalerriko buru sendoena, argiena eta

adimen landuena” (Loyarte) zan Jamarekin eztabaida bizi bat izan zuen Manterola bi aztergai auek arrek ezarri zituanean: Nora arte interesgarria da egitan euskera iraunaztea? eta, Gogorik bai ote iraun arazteko eta au lortzeko gogor egitea?

Zabarkeria au edonon garai artan. Euskeraren alde gizarte batzuetan zegoen ajolagabekerien beste ale bat izan diteke LA SEMANA izparingiak Manterolaren eriotz ondoren Donostian agertu zan idazti batean jarri zuana. Aren eginkizunak goretsi arren, onela zion: “Euskera, bere gurasoen izkuntza, berpizteko artu zuen lanetan baliteke oker egotea; urruti eta ez jakin asmoetara gizartea daramakiten ezinbesteko legeak, naitanaiez eriotzera daramazki berezitasun historiko guziak, bai jatorri eta izkuntzarenak”.

Ez zan, ordea, euskera utsa pot eginik zegoena, baizik eta euskal sentzu berbera era bai. Ezaugarri asko aipa ditezke, susmo keskatsurik sor arazi ez dezakeen Jamarena dan onoko au naiko ez balitz. “Calei-Cale”-ri Itzaurre artan zuzendutakoak dira itz auek: “zure aberri aldeko sinismen eta maitasuna aundiak izan arren, aberri grina sutua izanikan ere, sua zabaldu diteken beldurrik ez beza inork: animetan jela besterik ez dago emen”.

Giro kazkar arrek ez zuen atzera bota gure Manterola. Barne-barnean nabari zuen olerti indarrak aaztu edo ez ezagunak ziran antxinako olerkiak, baita ere bere garaikoenak, euzkalki guzietarakoak, jaso zituen. Lan gogorra benetan artu zuena CACIONERO VASCO arren 1876-tik 1880-ra ager arazi zituen iru Sailak gertutzen. Olerkiekin batera, egileen nortasuna, filologi eta gramatika oarrak, itzulpen, eta bukaeran euskal-gaztelani-prantzez iztegi luze batez ornituak gainera. Berari esker bildu eta argitaratua gelditu zan, beretzat “euskal olerkari arteko samur eta unkiagarriena”, zan Vilincheren olerki bilduma.

CACIONERO onetaz Truebak zion: “ez zitekeela euskal-napar errian erri edo batzorde bakarrik izan liburu au gogo biziz gorde ez zezakeenik”.

Alaz ere, arrera txit otza izan zuen liburu Sail onek. Loyarterentzat, “argitaratzeen erosotasuna bere berritasunean eta ez euskaltasunean zegoelako: euskal sendimendua ila bait zegoen”.

Esakun au geiegizkoa dirudi edo sentikizun orren agertzeari mugatua. Ixilik zeudenen zuzpergarri izan bait zan, zuzia piztu zuena, eta au bere merezimendu aundiena.

Olako bearretan jartzea ez zan Manterolarentzat asmo berria, aspalditik zetorkiona baizik. Nabari da Juan V. Araquistainek ziona baieztuez gero: “1866 edo 1867-n inguruan, bakoitza alde bana biali ginduan 1868-ko politika zurrumbilo arren aurretik (irailako matxinada) barrenkoi leia eta aberri maitasun gartsuak biltzen ginduen adiskide batzu, Trueba, Loreda, Manterola, Moraza, Villavaso, Joaquín Jamar, Soraluze, Delmás, Ortiz de Zárate eta ainbat geiagi, euskalerriko literario burrundarak, Iparraguirre bersolarien dei gogorrik esnatuta, artu zuen indarraren eutsi bearra nabaiturik...” euskal idazti eta

egileen lanak biltzeko asmoetan arkitu zirala agertzen du. 18 urte zituan Manterolak garai artan.

1880-ko uztailaren 15-n, CANCIONERO-aren irugarren Saila ager urtean, arrisku berri batean sartu zan Manterola: EUSKAL-ERRIA aldizkaria azaldu eta zuzentzekoan. Eredu zuen REVISTA EUSKARA; Biltzar Euskaldun eta Elizondon gertutako Lore Jokoakin, Campi3n, Araquistain, Iturralde eta Suit beste batzuekin, gai auetan Naparroa aurrelari egin bait zuten.

Garrantzi aundikoa EUSKAL-ERRIA-k egindako bearra bizi izan zan 38 urteetan, 1918-an itzali arteraino. Idazle ezagunenak, emengo eta atzerrikoak, lankide agertzen zaizkigu bere orrietan; euskeraz nola erderaz, itz lauz edo neurtitzaz, literari gaiak azalduaz bainan baita ere noski, edesti, filologi, erri-kuntz, edergai eta abar, euskaldunei begira idatziak. Gai zan Manterola alderdi guzi auek ikutzeko eta ala, nagusitasunez, erabili ere. Bein eta beti, alabaina, irakurleak gutxituko zizkion politika kutsurik gabe.

Euskal Lore Jokuen Konsistorioak agerbide berezi bezela artu zuen aldizkaria. Manterolari esker, 1882-ean jaioa, bera idazkari izana, Batzorde onek berebiziko lanak egin zituen erri jai, olerti, bersolari eta antzerti mailan batibat, leiaketa eta sari bidez.

Orain arte esandakoak izan ziran, obeto aztertu bear liraken, euskal kulturaren arloan Manterola mugitu arazi zuten kezka, xede, lan eta eginkizunak. Egun eta gerokoentzat bere bizi laburra ondo betea eskeintzen dituztenak. Bainan jokaera au begira ondoren, galdera bat sortzen zaio edonoreri: Nola agertzen zitzaion funtsean ain maite zuen Euskalerrria? Garai artako pentsakera ikusiaz, geiegikoa dirudit laterri berezi bat bezela esatea. Alaz ere, itxuraz beintzat, gaurko zazpirak baten urruti ez zegoen bere idealismoa. Orduko elburua, agian, euskera bidez lor zitekeen batasuna, azkatasun girorik, oraindikan, jaio gabea zanean.

Naikoa dio, neretzat, bere EUSKAL-ERRIA aldizkarien azalak. Beraren jiran marraztutako ertzearen buruan, lodi idatzia, agertzen da “HEPTARQUIA EUSKARA” ikurritza, eta banan-banan andik bera zazpi euskal lurraldeen izenak. Bestalde, leenengo atalaren asieran dagoen irudi margotuan, ager zoriko eguzki dirdira aurrean zazpi gailur; berago eta errekatxo baten ondoan zugaitz zaar, mardul moztuan idatziak lurraldeen izenak berriro eta urtean, baserritar jantziaz, biloba irakasten ari dan aitona. Manterolak asmatu zuen irudi au, idazlari bezela ezagunago degun Iturralde eta Suitek egina degu. Irudi au zeazten duen lerroetan Manterolaren abertzaletasuna ageri dago.

Gazterik il zan Manterola, 35 urte bete aurretik, 1884-ko otsailaren 15-ean, Donostiako Avenida de la Libertaden 26-ko bigarren bizitzan. Pedro Egañak dionez, perlesi batek jota. EUSKAL-ERRIAN laguntzaile zuen eta bere urren zuzendari, Antonio Arzakek, onela dio itzez-itz ulerkaitza bazaigu ere: “zure azkeneko egunetan sufrimentu izugarriekin oiean zaudela...”.

Esan dezadan ere Donostiako Erri Liburutegiaren zuzendaria izan zala eta bere urren Pío Barojaren anaia Serafín.

Il zanean, adiskide zituen idazleak, DONOSTIAN MANTEROLARI ize-neko ornen idaztitxo bat argiratu zuten. Bertatik artuak dira nere zenbait zatiren ordez aipu.

Esandakoak laburtuaz, berari burututako CACIONERO, EUSKAL-ERRIA eta Lore-Jokoakin, Donostiako euskal kulturaren sortzaile, berpiztuzaile edo, naiago bada, esnatzailea izan zan, neretzat, Manterola. Urteen zear, ainbeste neke eta itzal-une garratz ondoren gure egunetaraino iritxi dan kulturarena. Lanean gogor zebilen urte aietan, 1882-ean ain zuzen ere, diruditanez, aspaldiko eta oraindik eskutuan zeuden Larramendiren COROGRAFIA, Moguelen PERU ABARCA eta Aizkibelen IZTEGIA ez ziran ustekabeen agertu. Ez eta, Soroa leenen eta ainbeste bere ondoren garai berean gure antzerkia, orain gutxi arte ezagutu degun antzerkia, ia ezerretzik aterea izatea.